



SAN JUAN JAIK PARTE HARTZAILEAK ETA ARRAKASTATSUAK

- **Aurtengo festen harira, Udalak herritarren partaidetza itzela azpimarratu du eta besteak beste, ekintza eta ekitaldi desberdinen zein herri bazkariaren parte-hartze altua nabarmendu du**
- **Halaber, eskerrak eman dizkie herriko talde, elkarte eta eragileei egindako lan eta esfortzuagatik, beren jarduna ezinbestekoa izan delako jaiak ospatzeko**

Dagoeneko amaitu dira 2017ko San Juan jaiak. Kaleko musika eta festa giroa itzali dira eta herria ohiko egunerokotasunera bueltatzen ari den honetan, Udalak, egitarauari, parte hartzeari eta jaien igarotzeari buruzko balorazio positiboa egin du gaurkoan.

Aurtengoan bereziki herritarren partaidetza itzela azpimarratu eta eskertu ditu. 2017ko jai-egitarauan jasotako emanaldi eta ekintzek, haur, gazte zein helduei zuzendutakoek, hain zuzen, harrera ezin hobea izan dute arrasatearren artean eta herritarren parte-hartzea aktiboa eta oso altua izan da guztietan. "Festak ez dira festa herritarren parte-hartzerik gabe eta bide horretatik, arrasatearren inplikazioa guztiz eskertzekoa da, ekitaldi guztiak jendetsuak izan baitira", gehitu du Udalak. Horien artean, azken egunean herriko plazan egiten den kontzertua nabarmendu du, urteen poderioz, bere lekua hartu baitu programan eta jaiak agurtzeko modu bikaina bilakatu baita herritarrentzat ere.

Horrez gain, herri bazkari eta afariei dagokienean, betetze maila aparta izan da. *Zeuk iñ Zeuk jan* bazkariak 6 urte bete ditu aurten eta ia 1000 lagunena parte hartzearekin, 2017ko edizioa izan da guztietan arrakastatsuen. *Dragoi Janak* ere, urtetik urtera ospe handiagoa lortu du eta aurtengoan ez da toki bat bera ere hutsa gelditu. Guztira 450 lagun baino gehiago bildu ziren bertan.

Era berean, Udalak eskerrak eman dizkie herriko talde, eragile eta elkarteei festen antolakuntzan egindako lana eta inplikazioagatik. "Ekintza egitaraua ilusioz eta esfortzuz beteriko lanaren emaitza izan da eta aurtengo programak herritarren artean izan duen harrera ona, lan eta esfortzu horren isla izan dira" azaldu du Udalak.

Amaitzeko, San Juanetan herrian eta herritarren artean oro har bizitako giro ona nabarmendu du. "San Juanak festa herrikoiak dira eta arrasatearrok, guztiok batera, giro onean, errespetuan eta berdintasunean gozatu ditugu aurten ere festa hauek", azaldu du Udalak. "Hori esanda, aipa dezakegu aurtengo San Juanak arrakastatsua izan direla bai parte-hartze eta bai giro aldetik eta horregatik, berriro ere, eskerrik beroenak ematen dizkizue Udalak parte hartu duzuen guztioi" amaitu du.



Arrasaten, 2017ko ekainaren 27an

PARTICIPATIVAS Y EXITOSAS FIESTAS DE SAN JUAN

- **El Ayuntamiento destaca la increíble participación ciudadana y subraya, la alta participación obtenida tanto en las comidas y cenas populares como en las diversas actividades organizadas durante las fiestas**
- **Asimismo, agradece el esfuerzo realizado por los grupos, agentes y asociaciones del municipio en la organización del programa, ya que su trabajo ha resultado imprescindible a la hora de celebrar las fiestas**

Ya hemos dejado atrás las fiestas de San Juan. La música callejera y el ambiente festivo ya se han apagado y en esta semana de vuelta a la normalidad, el Ayuntamiento realiza una valoración positiva sobre la programación, la participación y el desarrollo las fiestas municipales.

Este año destaca sobre todo la increíble participación ciudadana. Los actos recogidos en el programa han tenido muy buena acogida entre las y los arrasatearras, tanto entre las y los niños, como entre los jóvenes y adultos. A ese respecto, el Consistorio subraya la participación activa de la ciudadanía en todos ellos. "Las fiestas no son fiestas sin la participación ciudadana, por ello, desde el Ayuntamiento agradecemos enormemente la implicación de todas y todos", han añadido. Entre las actividades organizadas, destaca el concierto realizado ayer en la plaza del pueblo para despedir los San Juanes, evento que con el paso de los años ha encontrado su lugar dentro del programa y que se ha convertido en un insuperable broche y cierre final de las fiestas.

Además de ello, en cuanto a las comidas y cenas populares se refiere, el aforo ha sido completo. La comida *Zeuk iñ Zeuk jan* ha contado con la participación de alrededor de 1000 personas, siendo ésta edición la más popular de las 6 celebradas hasta ahora. Asimismo, más de 450 personas han acudido al *Dragoi Jana 2017*, que año por año también va aumentando su popularidad.

Por todo ello, el Ayuntamiento da las gracias a las y los agentes, grupos y asociaciones del municipio por su trabajo e implicación en la organización de las fiestas. "El programa de actividades es fruto de un trabajo lleno de esfuerzo e ilusión y la buena acogida que ha tenido entre la ciudadanía es el claro reflejo de ello", han señalado.

Apara finalizar también han destacado el buen ambiente percibido y vivido en Arrasate y entre las y los arrasatearras durante las fiestas. "Los San Juanes son fiestas populares y como todos los años, todas y todos hemos disfrutado de ellas en buen ambiente, respeto e igualdad", han señalado desde el Ayuntamiento. "Dicho esto, podemos decir que estas fiestas han sido un éxito tanto por la alta participación como por el buen ambiente y por todo ello, una vez más, el Ayuntamiento da las gracias a todas las personas que han participado en ellas", han finalizado desde el Consistorio.

AYUNTAMIENTO DE ARRASATE
En Arrasate, 27 de junio de 2017